



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

**ARRETA GOIZTIARREKO MARKO-PLANAREN GARAPENA
ETA BILAKAERA DURANGALDEKO IKASTETXEETAN**

Garapenaren Ohiko Zaintza

Egilea: Ariane Azpitarte González

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

Aurkibidea

| | |
|-------------------------------------|----|
| 1. Sarrera orokorra | 4 |
| 1.1. Lanaren testuingurua | 6 |
| 1.2. Lanaren helburu orokorra | 10 |
| 2. Metodologia | 11 |
| 2.1. Partehartzaileak..... | 11 |
| 2.2. Iturriak | 11 |
| 2.3. Prozedura..... | 12 |
| 3. Emaitzak | 13 |
| 4. Emaitzen eztabaida | 17 |
| 5. Ondorioak..... | 25 |
| 5.1. Lanarekin lotutakoak | 25 |
| 5.2. Pertsonalak | 28 |
| Erreferentziak | 30 |

ARRETA GOIZTIARREKO MARKO-PLANAREN GARAPENA ETA BILAKAERA
DURANGALDEKO IKASTETXEETAN
Garapenaren Ohiko Zaintza

Ariane Azpitarte González
UPV/EHU

Laburpena: Munduko hezkuntza sistema orok hurrei kalitatezko heziketa bat emateko helburua izan behar du; honek, hezkuntza inklusiboaren bidea egiten duelarik. Eremu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila ekintza ugari bultzatzen ari da azken urteotan hurrek hezkuntza prozesuan izan ditzaketen oztopo edo arazo ezberdinak murrizteko asmoz eta horien artean, Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa dago. Protokoloak, hurrek markatzen dituzten alerta seinaleez ohartu, zailtasunak detektatu eta eskola eremutik esku hartze prozesua ekitea ditu helburu. Gradu Amaierako Lan honen helburua protokoloaren erabilpenaren eraginkortasuna aztertzea da. EAEko datu guztiak lortu ezinean, Durangaldekoak hartu dira, bertan dauden emaitzak urkultzeko. Azterketa honen emaitzek, protokoloa modu arduratsuan erabiltzeko garrantziaz jabetzera eramango gaituzte.

Hezkuntza inklusiboa, garapen integrala, arreta goiztiarra, alerta seinaleak, garapen goiztiarra

Resumen: Todo Sistema Educativo ha de tener como finalidad proporcionar a las alumnas y a los alumnos una educación de calidad en el marco de una escuela Inclusiva. En este sentido, el Departamento de Educación de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), está poniendo en marcha en los últimos años una serie de acciones dirigidas a disminuir las diferentes dificultades u obstáculos que puedan tener los alumnos y alumnas durante el Proceso Educativo. Dentro de estas medidas se encuentra el Protocolo de Seguimiento del Desarrollo Infantil; que tiene como objetivos advertir las señales de alerta, detectar las dificultades e intervenir desde el ámbito escolar. El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es analizar la eficacia de la utilización de dicho protocolo. Dada la dificultad para conseguir los datos de la CAV, se han utilizado como muestra los del Duranguesado. Los resultados de este análisis nos llevarán a percatarnos de la importancia de una buena utilización del protocolo.

Educación inclusiva, desarrollo integral, atención temprana, señales de alerta, desarrollo precoz

Abstract: Every Educational System must aim at providing students with the highest quality education within the framework of an inclusive school. In this sense, nowadays the Education Department of the Basque Autonomous Community (CAV), is promoting a series of actions pointed at reducing the different difficulties or obstacles that students may have had during the Educational Process. One of those measures is the Child Development Monitoring Protocol; which is intended to identify the warning signs, to detect difficulties and to take measures as school level. The goal of this Graduation Project is to analyze the effectivity of the mentioned protocol. As obtaining data at CAV level has been difficult, Duranguesado County's figures have been used as the basis for this work. The results of this analysis will confirm the relevance of the right use of the protocol.

Inclusive education, integral development, early attention, warning signs, early development

1. SARRERA OROKORRA

Munduko hezkuntza sistema guztiek haurren kalitatezko heziketa bat emateko erronkari aurre egin behar diote eta hezkuntza sistema horrek, hezkuntza inklusiboaren bidea egin behar du ezinbestean. Hezkuntza korrante demokratikoez egindako hausnarketen eta ekarpenen fruitua da hezkuntzaren korrante inklusiboa.

Euskal Herriko Hezkuntza Bereziko Egitasmoa (1982) izan zen aitzindaria. Egitasmo hark abian jarritako ekimenei esker, hezkuntza gero eta inklusiboagoa bilakatu da. Geroago, 1987an batzorde bat eratu zen egitasmoa aztertzeko eta Eskola Muinbakarra eta Integratzailea txostena osatu zuen. Bertan, eskolak herrialdeko neska mutil guztiak onartu behar dituela bereizketarik gabe eta ikasle guztien integrazioa bultzatu behar duela bai eskolan eta bai gizartean, adierazten zen (Eusko Jaurlaritza, 2012).

1990ean, UNESCOk nazioarteko foro bat egin zuen Jomtien hirian (Tailandia). Han, inklusioaren ideia mahai gaineratu zen lehenengo aldiz (Eusko Jaurlaritza, 2012).

Geroago, *Salamanca deklazioa (1994)* etorri zen. Deklarazio horretan, haur eta gazte guztiak, hezkuntza premia bereziak izan edo ez, hezkuntza sistema berean hezteko ezinbestekoa zela azpimarratu zen (Echeita Sarrionandia eta Verdugo Alonso, 2004).

Lisboako Itunean (2007) sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa, urritasuna, adina edo sexu-joera arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzeko konpromisoa hartzen du Europar Batasunak.

Hezkuntza eta prestakuntza Europan: sistema anitzak, 2010erako helburu komunak izeneko lan egitasmoan hainbat hezkuntza helburu zehaztu ziren. Horietako batzuek, desabantaila egoeran dauden ikasleei egiten diete erreferentzia zuzena, adibidez; premia bereziak dituztenei, ikasle helduei, gizarte maila apala dutenei etab (Comisión Europea, 2002).

Bestalde, Europar Batasunak 2020rako ezarritako helburuen artean bi nabarmentzen dira, horrela agertzen dira Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloan (2015): "ikasleen %10ek baino gutxiagok utzi behar lioke ikasteari behar

baino lehenago, eta belaunaldi gazteenaren %40k, gutxienez, goi mailako ikasketa osoak izan behar lituzke” (9.orr).

INCLUD-ED programa eta *Index for Inclusion* delakoak hezkuntza inklusiboa ebaluatzeko eta hobetzeko gidan hiru ardatz bereiztu zituen: kultura inklusiboak sortzea, politika inklusiboak lantzea eta praktika inklusiboak egitea (Booth eta Ainscow, 2011).

Eskola inklusiboa definitzeko, hezkuntza inklusiboaren aldeko zenbait egileren definizioa erabiliko da, hain zuzen ere, eskola inklusiboak haur eta gazte guztiek hezkuntza jasoko dutela bermatu behar du, ez ordea, edozein hezkuntza, baizik eta guztiei aukerak ematen dizkien kalitatezko hezkuntza (Echeita Sarrionandia eta Duk Homad, 2008). Eremu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hezkuntza Sailak plan eta ekintza ugari bultzatzen ari da haurrek hezkuntza prozesuan izan ditzaketen eragozpenak eta oztopoak murrizteko asmoz. Horrela, lehen urratsa haurrak garapenean izan daitezkeen urritasunak, nahasmenduak edota arazoak goiz detektatzea da.

Azken baten, haurrak markatzen dituen alerta seinaleez ohartu; hau da, besteengandik bereizten zaizkien portaerak, haurraren adin kronologikoarekin erabat ez datozenak eta garapen motorra, kognitiboa, emozionala edota soziala nabarmen oztopatzen dituztenak, garapenean dauden zailtasunak detektatu eta eskola eremutik esku hartze prozesuari ekin, betiere osasun eta gizarte arloko zerbitzuen laguntzarekin.

Hezkuntza Saila haurraren garapenaren arretan hezkuntza sistemak funtsezko eginkizuna betetzen duela jabetu zen. Hori horrela, *Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa* abian jarri zuen protokoloaren lehen fasea (Garapenaren Ohiko Zaintza) 2015-2016 ikasturtean 2 eta 3 urteko haurren geletan abiaraziz, eta hurrengo ikasturtetik 2016-2017 aurrera, aldiz, 2 eta 5 urteko haurren geletara zabalduz.

Protokoloaren helburua da, garapenean izan daitezkeen urritasun, nahasmendu edota arazoak goiz detektatzea, eta ikasleari, familiari eta hezkuntza komunitateari egungo eta etorkizuneko premiei hobeto erantzutea, eta aldi berean, ekitatea eta aniztasunarekiko errespetua bermatzea testuinguru inklusibo batean.

1.1. Lanaren testuingurua

Haur Hezkuntza Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren aurretiazko etapa da eta EAEn, bi eta sei urte bitarteko haurrak ia %100 eskolatzen dira. Horrela, txiki txikitatik hezkuntzarako eskubidea bermatzen zaie pertsona guztiei, inolako diskriminaziorik egin gabe. Izan ere, diferentzia ekonomikoak, sozialak, hizkuntzakoak, kulturalak eta pertsonalak gainditzea da haren xedeetako bat. Hau da, haurren garapen integrala lantzea, dimentsio eta alderdi guztietan, familiekin batera gertuko lankidetzaren bidez.

Hezkuntza etapa honetan, oinarrizko konpetentziak eskuratzeko funtsa ezartzen eta lantzen da, horrela, bizitzako eremu eta egoera guztietan arazoei egokiro erantzuteko oinarriak ezarriz.

Eskolatze goiztiarra gizartearen eta hezkuntza sistemaren ardura eta erantzukizuna da eta ez soilik haurra zaindu edo artatzen duen profesionalarena. Beraz, Haur Hezkuntzatik, aniztasun horri nola erantzun behar den adierazten du inklusioaren kontzeptuak (Eusko Jaurlaritzak, 2012). Eskola inklusiboan haur guztiek jasotzen dute hezkuntza, ez nolana hiko baizik eta kalitatezkoa, guztiei aukera berdina ematen dizkiena modu justu eta zuzenean (Echeita Sarrionandia eta Duk Homad, 2008). Horregatik eta horretarako *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan*. Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloan (2015) agertzen den bezala: “Tresna garrantzitsutzat har daiteke, baina probaren eraginkortasuna ez da handia izango ez bada prozesu ordenatu eta esplizitu baten arabera ezartzen” (11.orr).

Lan honen asmoa da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2015-2016 ikasturtean martxan jarri zuen, *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa* aztertzea eta bere inplementazioa Durangaldeko ikastetxeetan ikertzea.

Protokoloak garapenaren zailtasunen identifikazio eta esku hartzerako hiru zati bereizten ditu. Aurrena, *Garapenaren Ohiko Zaintza*, non apropos diseinatutako tresnekin, hau da, Haurren Garapena Behatzeko Eskalak (HGBE) 2, 3, 4 eta 5 urteko haur guztien garapena aztertzen den. Bigarrena, *Detekzio Espezifikoa* izena duena eta, garapenaren arlo baten edo batzuetan alerta seinaleak ematen direnean, abian jartzen

dena. Kasu honetan, galbahetze tresna estandarizatuak erabiltzen dira. Hirugarrena, aurretikoaren ondorioz hiru eszenatokiri aurre egingo zaio: *esku hartze berariazkoa, balorazio psikopedagogikoa egitea edota gizarte edo osasun zerbitzuetara bideratzea*. Azken baten, haurrari, familiari eta ingurune sozialari eskaintzen zaion esku-hartze multzoa da, haiek izan ditzaketen arazoei aurre egiteko. Haurraren garapenean ager daitezkeen trastornoak edo horiek pairatzeak izan ditzakeen arriskuei ahal bezain laster erantzutea da helburua, umeak ahalik eta garapen integrala eta bizitza sozial hoberen izan dezan laguntzeko.

Haurraren Garapena Behatzeko Eskalen aplikazioaren denbora tartea, beti eta denontzat berdina izango da. Ikasturtero 4 eta 5 urteko gelatan, azaroaren 1etik abenduaren 20ra bitartean egingo dira behaketak, eta berriz, 2 eta 3 urteko geletan, lehenengo hilabeteak eskolara edo egoera berria egokitzeko utziz, otsailaren 1etik martxoaren 15era bitartean. Hala ere, bi kasuetan eta salbuespen moduan behaketa aldia beste bi astez luzatu ahal izango da beharrezkoa balitz (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Haur Hezkuntzako 2 eta 5 urte bitarteko behaketa eskalak denetara 230 itemek osatzen dituzte, horietatik 122 garapen arloei dagozkie, 44 goi mailako garapenari eta beste 64 alerta seinaleenak dira. Ondorengo taulan (1. Taula) zehazten dira adinaren arabera garapenaren arloak eta bakoitzari dagokion item kopurua.

1. Taula: Garapenaren arloak

| ADINA | GARAPENAREN ARLOAK | | | | | GARAPEN GOIZTIARRA | ALERTA SEINALEAK | GUZTIRA |
|---------|--------------------|--------------------|----------------------|------------------------|---------|--------------------|------------------|---------|
| | Motorra fisikoa | Pertsonala soziala | Pertzepzioa ulermena | Hizkuntza komunikazioa | Guztira | | | |
| 2 URTE | 9 | 7 | 8 | 7 | 31 | 8 | 13 | 52 |
| 3 URTE | 8 | 9 | 7 | 7 | 31 | 12 | 16 | 59 |
| 4 URTE | 9 | 8 | 9 | 8 | 34 | 12 | 14 | 60 |
| 5 URTE | 4 | 8 | 8 | 6 | 26 | 12 | 21 | 59 |
| GUZTIRA | 30 | 32 | 32 | 28 | 122 | 44 | 64 | 230 |


Arreta Goiztiarreko Protokoloak (2015) dioen bezala, behaketa eskala, prebentzioaren ikuspegitik begiratuta funtsezko tresna da arazoak murrizteko. Sintomarik ez duten pertsonen egiten zaien azterketa da, arazo jakin bat latentzia fasean dutenak, edo gaixotasun hori izateko arriskua areagotua dutenak identifikatzeko. Behaketa ez da proba diagnostiko baizik eta behaketa bat. Haur

bakoitzaren behaketa eskala betetzeko talde osoari egindako behaketatik jasotako informazioz baliatzen da, haurrak garapenean izan ditzakeen arriskuak adierazteko beste zehetasun maila duelarik. Hala ere, tresna garrantzitsua da, diagnostikatu ez arren, gerora diagnostika daitezkeen arazoak detektatzeko aukera ematen duena, eta beraz, esku hartzea ahalbidetzen duena.

Arreta Goiztiarreko Marko Planaren barruan, haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe publiko zein pribatuetan gauzatuko da. Protokoloak adierazten dituen prozesuak eta aplikazioaldiak errespetatuz, eta Haurren Garapenaren Behaketa Eskalak erabiltzeko jarraibideak eta gomendioak kontuan hartuz.

Lan honen helburu orokorra HGBE implementazioaren jarraipena egitea eta implementaziotik ondorioztatutako datuen azterketa, ahalik sakonena eta zehatzena egitea da. Erkidego osoko datuak eskuragarri izatea ezinezkoa gertatu izan denez, ikerketaren lagina Bizkaia lurraldeko Durangaldea eskualdera mugatzen da.

Durangaldea Bizkaiko hego-ekialdean dagoen eskualdean da. Iparraldean Leartibai dauka mugakide, hegoaldean Zuia-Gorbeialdea (Araba), mendebaldean Arratia eta ekialdean Debagoiena (Gipuzkoa).



Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

Durangaldeko Hezkuntza Barrutia 14 herrik osatzen du, guztira 95.184 biztanle direlarik. Ikastetxeen konfigurazioa ezberdina da: ikastetxerik gabekoak herri batzuk badira (Garai, Izurtza eta Mañaria) eta publiko eta itunpekoen artean eskaintza ere, ez da berdina (publikoek, Haur eta Lehen Hezkuntza eta itunpekoek, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza). Oro har 28 ikastetxe dira, 15 publikoak eta 13 pribatu itunpekoak. Adierazi behar da, ikastetxe pribatu guztiak hezkuntza ituna dutela Hezkuntza Sailarekin. Hurrengo taulan, (2. Taula) bakoitzaren kokapena eta ezaugarriak.

2.Taula: Durangaldeko eskola publiko eta pribatu itunpekoak (ikastolak, kristau eskolak eta kooperatibak)

| POSTA KODEA | HERRIA | BIZTAN LERIA | IKASTETXEA | SAREA | HEZKUNTZA ETAPAK | | | |
|-------------|-------------------|--------------|-----------------------------------|----------|------------------|-------|------|------|
| | | | | | HH | LH | DBH | BATX |
| 48220 | ABADIÑO | 7.533 | CEIP TRAÑA-MATIENA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CEIP ZELAIETA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48340 | AMOREBIETA ETXANO | 18.859 | CPEIPS ANDRA MARI HLBHIP | pribatua | X | X | - | - |
| | | | CEIP AMOREBIETA-LARREA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CPEIPS EL CARMELO HLBHIP | pribatua | X | X | X | X |
| | | | CPEIPS KARMENGO AMA HLBHIP | pribatua | X | X | X | - |
| | | | CPEIPS LAUAXETA HLBHIP | pribatua | X | X | X | X |
| 48291 | ATXONDO | 1.374 | CEIP ATXONDO HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48240 | BERRIZ | 4.707 | CEIP LEARRETA-MARKINA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48200 | DURANGO | 29.031 | CEIP LANDAKO ESKOLA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CEIP ZABALARRA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CPEIPS KURUTZIAGA HLBHIP | pribatua | X | X | X | - |
| | | | CPEIPS SAGRADO CORAZÓN HLBHIP | pribatua | X | X | X | - |
| | | | CPEIPS S. ANTONIO STA RITA HLBHIP | pribatua | X | X | X | - |
| | | | CPEIPS JESUITAK HLBHIP | pribatua | X | X | X | X |
| 48230 | ELORRIO | 7.303 | CEIP ELORRIO HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CEIP MARIA MEDIADORA HHIP | pribatua | X | - | - | - |
| | | | CPEIPS LOURDESKO AMA LBHIP | pribatua | - | X | X | - |
| | | | CPEIPS TXINTXIRRI HLBHIP | pribatua | X | X | X | - |
| 48260 | ERMUA | 16.028 | CPEIP ESKOLABARRI HLHIP | pribatua | X | X | - | - |
| | | | CEIPA ANAITASUNA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CEIP ONGARAI HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CEIP SAN LORENZO HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| | | | CPEIPS SAN PELAYO HLBHIP | pribatua | X | X | X | X |
| 48200 | GARAI | 309 | - | - | - | - | - | |
| 48215 | IURRETA | 3.724 | CEIP MAIZTEGI HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48213 | IZURTZA | 238 | - | - | - | - | - | |
| 48269 | MALLABIA | 1.173 | CEIP LEARRETA-MARKINA HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48212 | MAÑARIA | 523 | - | - | - | - | - | |
| 48210 | OTXANDIO | 1.295 | CEIP OTXANDIO HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| 48250 | ZALDIBAR | 3.087 | CEIP ZALDIBAR HLHI | publikoa | X | X | - | - |
| - | 14 | 95.184 | 28 | 15/13 | 15/11 | 15/12 | 0/10 | 0/4 |

1.2. Lanaren helburuak

Helburuak markatzerakoan, Arreta Goiztiarraren zergatia azaleratu behar da eta horren balioa agerian jarri ere, besteak beste, haurraren garapena prozesu dinamiko oso konplexua delako. Eta bertan, oinarri genetiko jakin baten gain, faktore biologiko eta psikosozial ugari jarduten dute. Elementu horien edozein nahastek arrisku bat dakar, edo garapenean trastornoak ere eragin ditzake (Arreta Sozio-sanitarioko Euskal Kontseiluak aginduta horretarako eraturiko Batzordearen Dokumentua, 2010).

Nahasmendu horiek garapenaren etapetako edozeinetan gerta daitezke: jaio aurrekoan, jaiotza inguruan, jaio ondoren edo garapen goiztiarrean. Nazioartean onartuta dauden estandarren arabera, garapen goiztiar horrek 0 urtetik 6 urtera bitarteko aldia hartzen du. Datuek adierazten dute nahasmendu horiek arrisku bat direla edo garapenean trastornoak sor ditzaketela adin-tarte horretako haurren %10 inguruan. Arazo handi bat eta garrantzi handikoa da, beraz.

Gaur egun, ebidentzia zientifikoak agerian uzten du adierazitako nahasmenduen arteko zenbait saihesgarriak direla, beste batzuk erabat edo partzialki zuzendu daitezkeela, eta nahasmendu horietako gehienen ondorio negatiboak gaia behar bezala aztertuta arin daitezkeela, eta zenbat eta lehenago azertu orduan eta eraginkorragoa izango da hurbilketa hori. Afektazio handieneko egoeretan ere, laguntza profesional espezializatua jasoz gero erlazionatutako nahasmenduak agertzea prebenitzen du, haurren eta haien familien ongizatea hobetzen du, eta autonomia-maila, parte-hartze aktiboaren maila eta gizarteratze-maila hobetzen ditu.

Helburuak zehazterakoan, tokia izan behar dute helburu orokorrek eta helburu espezifikoek. Azken hauek, gertuko esku-hartzearekin eta bertatik ondorioztatukoari aurre egiten diote, baina, beti haietan, hau da, helburu orokorretan oinarrituta eta haien mesedeetara.

1.2.1. Helburu orokorra

Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa martxan jarri zenetik eta egun arte Durangaldean izandako emaitzak sakon azertu eta bere ezagutza zehaztea.

1.2.2. Helburu espezifikoak

1. Durangaldeko haur kopuru eta ikastaldeen datuak jaso eta datu horiek urkultzea eta zehetzea, eta Lurraldekoekin eta Euskal Autonomia Erkidegokoekin alderatzea.
2. Durangaldeko hezkuntza sare ezberdinetako ikasle eta ikasgela kopuruak identifikatzea eta ikasturteetan zehar izan duten bilakaeraz ohartzea.
3. Durangaldeko ikastetxeetan alerta seinale eta garapen goiztiarra arloen berariazko azterketa egitea, horien bilakaera aztertzea, programaren inplementaziotik egungo artekoa. Arlo horien portaera generoaren ikuspegitik eta hezkuntza sareen arabera aztertzea eta alderatzea.
4. Durangaldean 2017-2018 ikasturtean alerta seinaleak ematen diren arloak identifikatzea, aztertzea eta, hala badagokio, alderatzea.
5. Durangaldeko eremuan inplementazio prozesuan agertutako kezka eta zalantzak identifikatzea.

2. METODOLOGIA

Lan honetan erabilitako metodologia deskriptiboa da, hainbeste estatistiken errebisioa, deskripzioa eta interpretazioa burutu delako. Aurrena, eremu geografikoaren identifikazioa egin da, Durangaldeko ikastetxe publikoen zein pribatu itunpekoen datuak eta ezaugarriak zehaztu dira. Ondoren, protokoloaren izaeraz ohartu, bildu beharreko datuak zehaztu ahal izateko eta horrela lanaren helburua lortu.

2.1. Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak 2015-2016 ikasturtetik 2017-2018 ikasturte artean Durangaldeko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako 2 eta 5 urte bitarteko 4.955 haur izan dira, horietatik 2.419 neska eta 2.536 mutilak.

2.2. Iturriak

- *Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan*

- Ramon Muñoz-i (Arreta Goiztiarra taldearen koordinatzailea, I. eranskina) eta Isabelen Galende-ri (Arreta Goiztiarra taldeko partaidea, II. eranskina) egindako elkarrizketak.
- Haurraren Garapena Behatzeko Eskalen emaitzak eta ikasturte bakoitzeko memoria (Durangoko Berritzegune B09).

2.3. Prozedura

Kontuan izanik lan hau egiteko, lehenengo eta behin datu bilketa bat egin behar izan dela, lehen urratsa Arreta Goiztiarreko Protokoloan dauden Haurraren Garapena Behatzeko eskalek Durangaldean emandako datuak eskuragarri zeuden edo ez konprobatzea ezinbestekoa izan zen. Beraz, Durangaldeko Berritzegunean galdetzea izan zen lehenengo pausua. Datuak jasotzeko aukera baieztatu ondoren, dokumentazioaren ezagutza eta azterketari ekin zaio, hain zuzen, Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan eta bereziki Haurraren Garapena Behatzeko Eskalari dagokion atalean.

Dokumentuaren azterketa eginda beharrezko izan da terminologiaren hautaketa eta zehaztapena egitea (III. eranskina). Horrela, hitz klabeen esanahi berdina eta bateratua bermatzen da idazle eta irakurleen artean. Beraz, gaiari dagokion terminologia zehatza eta propioa abordatu egin da. Segidan, dokumentazioaren ezagutza eta azterketatik eratorritako aspektu esanguratsu eta mamitsuenak islatu dira: Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak, Detekzio Espezifikorako screening tresna barematuak, protokoloak eta beste zerbitzu batzuetarako deribazio txostena.

Tartean, informazioa jasotzeko eta tratatzeko tresnak bildu, diseinatu eta sortu dira (IV. eranskina): fitxa teknikoak, erregistro orriak eta prozeduren zehaztapenerako, elkarrizketen egitura eta gidoia, datu bilketarako medioak, etab.

Ondoren, ustiapen estatistikoa (V. eranskina) gauzatu da: datu orokorrak hezkuntza sareka eta generoa kontuan izanik, alerta seinaleen kopurua eta ehunekoa adinka, garapen goiztiarraren kopurua eta ehunekoa adinka, bilakaera ikasturterik ikasturte eta bilakaera jaiotze urtearen arabera, etab.

Hurrena, emaitzen eztabaida gauzatzea eta azkenik ondorioek izan dute tartea.

3. EMAITZAK

3.1. Eskualdeko datuen irudikapena

Hurrengo taulan agertzen diren datuak 2016-2017 ikasturteari dagozkio. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta haur-talde kopuruak lurraldeka agertzen dira, Durangaldeari dagozkionak Bizkaiko lurraldearekin erkatuta eta EAEkoekin %-tan alderatuta daude. Laburbilduz, Durangaldeak Erkidegoko Haur Hezkuntzako haurren %5a osatzen du eta Bizkaia lurraldeko %10a (3. Taula).

3. Taula: Lurraldeko datuak

| LURRALDEA | 2 URTE | | 3 URTE | | 4 URTE | | 5 URTE | | GUZTIRA | |
|-------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| | HAURRAK | TALDEAK | HAURRAK | TALDEAK | HAURRAK | TALDEAK | HAURRAK | TALDEAK | HAURRAK | TALDEAK |
| ARABA | 2.682 | 158 | 3.395 | 153 | 3.483 | 158 | 3.296 | 153 | 12.856 | 622 |
| BIZKAIA | 9.073 | 535 | 10.331 | 493 | 10.385 | 514 | 10.428 | 495 | 40.217 | 2.037 |
| DURANGALDEA | % 9,98 | % 11,12 | % 9,38 | % 9,84 | % 9,75 | % 10,02 | % 10,44 | % 10,20 | % 9,89 | % 10,31 |
| GIPUZKOA | 6.099 | 407 | 7.010 | 340 | 7.276 | 363 | 7.269 | 348 | 27.654 | 1.458 |
| EAE | 17.854 | 1100 | 20.736 | 986 | 21.144 | 1.035 | 20.993 | 996 | 80.727 | 4.117 |
| DURANGALDEA | 905 | 59,5 | 969 | 48,5 | 1012 | 51,5 | 1089 | 50,5 | 3.975 | 210 |
| | | | | | | | | | % 4,93 | % 5,10 |

3.2. Eskualdeko haurrak eta taldeak sareka

Haur Hezkuntzako 2 urtetik 5 urteko mailen artean haur banaketa sarean arabera berdintsua da: %51,09a ikastetxe publikoetan eta %48,91 itunpekoetan. Talde kopuruan ezberdintasunak ageri dira, ikastetxe publikoetan 10 talde gehiago daudelako.

Bestalde, haur kopurua eta gela kopuruaren bilakaera larria ez bada ere, jaitsiz doa ikasturteak aurrera doazen heinean: iazko ikasturtean 3.975 ikasle izatetik, aurten 3.851ra, eta 210 gelatik 204ra pasatzen da. Datuak sareka alderatzen badira ikasle kopuruaren beherakada handiagoa ematen da itunpeko ikastetxeetan (89 ikasle) ikastetxe publikoetan (65 ikasle) baino; ordea, alderantzizkoa gertatzen da gela kopuruaren murrizketan, 5 talde sare publikoan eta bakarra itunpekoan (4. Taula).

4. Taula: Aplikatutako haurrak eta taldeak

| | | APLIKATUTAKO HAURRAK ETA TALDEAK | | | | | | | | | | | |
|------------|---------|----------------------------------|---------|---------|---------|------------------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Ikas urtea | adina | ESKOLA PUBLIKOAK | | | | ITUNPEKO ESKOLAK | | | | GUZTIRA | | | |
| | | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | TALDEAK | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | TALDEAK | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | TALDEAK |
| 2015-2016 | 2 urte | 270 | 201 | 471 | 30,5 | 224 | 237 | 461 | 28 | 494 | 438 | 932 | 58,5 |
| | 3 urte | 246 | 254 | 500 | 29,5 | 231 | 263 | 494 | 22 | 477 | 517 | 994 | 51,5 |
| | 4 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | 5 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | GUZTIRA | 516 | 455 | 971 | 60 | 455 | 500 | 955 | 50 | 971 | 955 | 1926 | 110 |
| 2016-2017 | 2 urte | 221 | 243 | 464 | 32,5 | 215 | 226 | 441 | 27 | 436 | 469 | 905 | 59,5 |
| | 3 urte | 268 | 225 | 493 | 26,5 | 239 | 237 | 476 | 22 | 507 | 462 | 969 | 48,5 |
| | 4 urte | 247 | 258 | 505 | 29,5 | 246 | 261 | 507 | 22 | 493 | 519 | 1012 | 51,5 |
| | 5 urte | 265 | 309 | 569 | 28,5 | 251 | 269 | 520 | 22 | 516 | 573 | 1089 | 50,5 |
| | GUZTIRA | 1001 | 1030 | 2031 | 117 | 951 | 993 | 1944 | 93 | 1952 | 2023 | 3975 | 210 |
| 2017-2018 | 2 urte | 222 | 248 | 470 | 29,5 | 212 | 235 | 447 | 26 | 434 | 483 | 917 | 55,5 |
| | 3 urte | 233 | 255 | 488 | 29,5 | 223 | 234 | 457 | 22 | 456 | 489 | 945 | 51,5 |
| | 4 urte | 282 | 218 | 500 | 25 | 242 | 250 | 492 | 22 | 524 | 468 | 992 | 47 |
| | 5 urte | 245 | 263 | 508 | 28 | 237 | 252 | 489 | 22 | 482 | 515 | 997 | 50 |
| | GUZTIRA | 982 | 984 | 1966 | 112 | 914 | 971 | 1885 | 92 | 1896 | 1955 | 3851 | 204 |
| GUZTIRA | | 2499 | 2469 | 4968 | 289 | 2320 | 2464 | 4784 | 235 | 4819 | 4933 | 9752 | 524 |

Generoa kontuan harturik, neska eta mutilen presentzia orekatua da, %49 eta %51 hurrenez hurren. Parekoa gertatzen da luzeka begiratuta ere, ikasturterik ikasturte bilakaera berdina baitu.

Programa martxan jarri denetik, Durangaldeko eskualdean egindako behaketak 9.752 izan dira, 4.968 behaketa sare publikoan eta 4.784 itunpeko sarean. Haietatik, 4.819 neskei egindakoak dira eta 4.933 mutilei.

3.3. Alerta seinaleak eta Garapen Goiztiarra

Alerta seinaleei dagokionez, Haur Hezkuntza osoan ikasturte honetan 197 kasu detektatu dira; ikasle kopururen %5,10a. Horietatik 116 (%58,88) ikastetxe publikoetan eta 81 (%41,12) itunpekoetan. Horren bilakaerari arreta jartzen bazaio 16-17 ikasturtean joera berdina agertzen da, baina 15-16ko datuak beste argazki bat erakusten dute: 103 kasutik, 36 (%34,95) sare publikoan eta 67 (%65,05) itunpekoan. Kontuan hartu behar da datu horiek 2 eta 3 urteko haurrenak direla, ikasturte horretan 4 eta 5 urtekoen behaketarik ez zitzaielako egin. Hala ere, ondorengo ikasturteetan 2 eta 3 urteko datuei erreparatuz gero sare ezberdinen arteko alerta seinale kopurua berdintsua da. Haurrek aurrera egin ahala alerta seinaleak sare publikoan gehituz doaz eta sare pribatuan gutxituz.

Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

Generoaren ikuspuntutik, 152 (%71,16) mutilak dira eta 45 (%28,84) neskak. Ezberdintasun nabarmen hori, bi sareetan gertatzen da, baina ikastetxe publikoen kasuan 10,5 puntu handiagoa da. Hasiera baten ez dago ageriko arrazoirik, aztertu beharreko aspektu bat da (5. Taula).

5. Taula: Alerta seinaleak

| ALERTA SEINALEAK | | | | | | | | | | | | | |
|------------------|---------|------------------|---------|---------|------|------------------|---------|---------|------|---------|---------|---------|------|
| Ikas urtea | adina | ESKOLA PUBLIKOAK | | | | ITUNPEKO ESKOLAK | | | | GUZTIRA | | | |
| | | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % |
| 2015-2016 | 2 urte | 1 | 15 | 16 | 3,92 | 12 | 20 | 32 | 6,94 | 13 | 35 | 48 | 5,15 |
| | 3 urte | 7 | 13 | 20 | 3,98 | 9 | 26 | 35 | 7,08 | 16 | 39 | 55 | 5,53 |
| | 4 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | 5 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | GUZTIRA | 8 | 28 | 36 | 3,87 | 21 | 46 | 67 | 7,02 | 29 | 74 | 103 | 5,35 |
| 2016-2017 | 2 urte | 3 | 20 | 23 | 4,96 | 6 | 18 | 24 | 5,44 | 9 | 38 | 47 | 5,19 |
| | 3 urte | 8 | 22 | 30 | 6,09 | 8 | 18 | 27 | 5,67 | 17 | 40 | 57 | 5,88 |
| | 4 urte | 9 | 25 | 34 | 6,73 | 8 | 10 | 18 | 3,55 | 17 | 35 | 52 | 5,14 |
| | 5 urte | 8 | 24 | 32 | 5,40 | 3 | 12 | 15 | 2,88 | 11 | 36 | 47 | 4,32 |
| | GUZTIRA | 28 | 91 | 119 | 5,86 | 26 | 58 | 84 | 4,29 | 54 | 149 | 203 | 5,10 |
| 2017-2018 | 2 urte | 3 | 19 | 22 | 4,68 | 5 | 11 | 16 | 3,58 | 8 | 30 | 38 | 4,14 |
| | 3 urte | 4 | 25 | 29 | 5,94 | 9 | 15 | 24 | 5,25 | 13 | 40 | 53 | 5,61 |
| | 4 urte | 10 | 26 | 36 | 7,20 | 6 | 16 | 22 | 4,47 | 16 | 42 | 58 | 5,84 |
| | 5 urte | 4 | 25 | 29 | 5,71 | 4 | 15 | 19 | 3,89 | 8 | 40 | 58 | 4,80 |
| | GUZTIRA | 21 | 95 | 116 | 5,90 | 24 | 57 | 81 | 4,30 | 45 | 152 | 197 | 5,10 |
| GUZTIRA | | 57 | 214 | 271 | 5,21 | 71 | 161 | 232 | 5,21 | 128 | 375 | 503 | |

Atal honen izenburuan Garapen Goiztiarra agertzen bada ere, nahasterik egon ez dadin zera argitu beharko litzateke, ez dio erreferentziarik egiten 0-3urtetako garapenari, baizik eta Goi Mailako Gaitasunak edo Adimen Gaitasun Handiak deituriko gaitasunei.

Goi mailako garapenaren eremuan, 30 kasu agertzen dira; ikasle kopuru osoaren %0,70 da. Horietatik 20 (%66,67) itunpeko ikastetxeetan eta 10 (%33,33) ikastetxe publikoetan. Goi mailako garapenaren kasuan ere ehuneko mantentzen da ikasturteetan zehar, batez bestekoa %1,08 da. Hala ere, sareen arteko ezberdintasuna esanguratsua da; ikastetxe publikoetan %0,53a da eta itunpekoetan %1,66a, aldea hirukoitza da.

Kasu honetan, generoaren ikuspuntutik, 17-18 ikasturteko datuei erreparatuta, 16 ikasle (%53,34) neskak dira eta 14 (%46,66) mutilak. Ez da ezberdintasun nabarmenik ikusten. Ordea, aurreko ikasturteetako datuak beste norabide bat adierazten dute, 16-17 ikasturtean neskak %57,44a dira eta 15-16 ikasturtean %63,15a.

Nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak bi sareetan portaera berdintsua du (6. Taula).

6. Taula: Garapen goiztiarra

| GARAPEN GOIZTIARRA | | | | | | | | | | | | | |
|--------------------|---------|------------------|---------|---------|------|------------------|---------|---------|------|---------|---------|---------|------|
| Ikas urtea | adina | ESKOLA PUBLIKOAK | | | | ITUNPEKO ESKOLAK | | | | GUZTIRA | | | |
| | | NEKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % | NEKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % | NEKAK | MUTILAK | GUZTIRA | % |
| 2015-2016 | 2 urte | 1 | 0 | 1 | 0,21 | 6 | 5 | 11 | 2,39 | 7 | 5 | 12 | 1,29 |
| | 3 urte | 1 | 2 | 3 | 0,60 | 4 | 0 | 4 | 0,81 | 5 | 2 | 7 | 0,70 |
| | 4 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | 5 urte | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | GUZTIRA | 2 | 2 | 4 | 0,42 | 10 | 5 | 15 | 1,57 | 12 | 7 | 19 | 0,99 |
| 2016-2017 | 2 urte | 2 | 0 | 2 | 0,43 | 7 | 6 | 13 | 2,95 | 9 | 6 | 15 | 1,66 |
| | 3 urte | 0 | 1 | 1 | 0,20 | 0 | 1 | 1 | 0,21 | 0 | 2 | 2 | 0,20 |
| | 4 urte | 2 | 1 | 3 | 0,60 | 2 | 1 | 3 | 0,59 | 4 | 2 | 6 | 0,59 |
| | 5 urte | 3 | 4 | 7 | 1,23 | 11 | 6 | 17 | 3,27 | 14 | 10 | 24 | 2,21 |
| | GUZTIRA | 7 | 6 | 13 | 0,64 | 20 | 14 | 34 | 1,75 | 27 | 20 | 47 | 1,18 |
| 2017-2018 | 2 urte | 2 | 0 | 2 | 0,43 | 5 | 1 | 6 | 1,34 | 7 | 1 | 8 | 0,88 |
| | 3 urte | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 0 | 0 | 0 | 0,00 |
| | 4 urte | 0 | 0 | 0 | 0,00 | 2 | 3 | 5 | 1,02 | 2 | 3 | 5 | 0,51 |
| | 5 urte | 3 | 5 | 8 | 1,58 | 2 | 7 | 9 | 1,84 | 5 | 12 | 17 | 1,71 |
| | GUZTIRA | 5 | 5 | 10 | 0,51 | 9 | 11 | 20 | 1,06 | 14 | 16 | 30 | 0,78 |
| GUZTIRA | | 14 | 13 | 27 | 0,54 | 39 | 30 | 69 | 1,47 | 53 | 43 | 96 | 1,00 |

3.4. Alerta seinaleak ematen diren arloak (2017-2018 ikasturtean)

Garapenean alerta seinaleak 197 hurrek markatu dituzte. Horitatik 12 (%6,10), motorra eta fisikoa arloari dagozkio; 21 (%10,65), pertsonala eta soziala arloari; 24 (%12,18), pertzepzio-ulermena eta arazoak konpontze arloari eta 46 (%23,35), hizkuntza eta komunikazio arloari. Baina badira beste 94 haur (%47,72) bi arlo edo gehiagotan alerta seinaleak ematen dituztenak. Azken datu horren urkultzea eginez gero, esan behar da, 94tik 73ak hizkuntza eta komunikazio arloan markatzen dutela. Beraz, hizkuntza eta komunikazio arloan alerta seinaleak markatzen dituztenak guztira 119 haur dira. Gainerako 21ak, beste hiru arloetan banatzen dira eta beraien artean ez da aurkitzen alde esanguratsurik (7. Taula).

7 Taula: Alerta seinaleak ematen dituzten haurrak arloka

| 2017-2018 | ALERTA SEINALEAK EMATEN DITUZTEN HAURRAK ARLOKA | | | | | | | | |
|-------------------------------|---|---------|--------|---------|--------|---------|--------|---------|------------|
| | 2 urte | | 3 urte | | 4 urte | | 5 urte | | HH Guztira |
| GARAPEN ARLOAK | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | |
| MOTORRA ETA FISIKOA | 1 | 3 | - | 4 | 1 | 2 | - | 1 | 12 |
| PERTSONALA ETA SOZIALA | - | 3 | 2 | 5 | - | 4 | 2 | 5 | 21 |
| PERTZEPZIO-ULER ARAZOAK KONPO | - | 2 | 3 | 4 | 1 | 5 | 1 | 8 | 24 |
| HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA | 3 | 6 | 3 | 7 | 7 | 10 | 2 | 8 | 46 |
| BI ARLO EDO GEHIAGO | 4 | 16 | 5 | 20 | 7 | 21 | 3 | 18 | 94 |
| | 8 | 30 | 13 | 40 | 16 | 42 | 8 | 40 | 197 |
| | 38 | | 53 | | 58 | | 48 | | |

3.5. Kezkak eta zalantzak

Protokoloa erabiltzerako prozesuan, hainbat zalantza eta kezka dira irakasleek izaten dituztenak, bai protokoloa aplikatu aurretik, bitartean eta amaieran ere. Kezka horiek ikasturteko memoriatan jasotzen dira, hurrengo ikasturterako erantzunak izateko asmoz. Horien artean, ondorengoak topa daitezke: eskalak pasatu eta gurasoei emaitzen berri eman behar bazaie, behaketak zeinek egiten dituen, prozesuan zehar gurasoek parte hartu behar baduten, gurasoen baimena beharrezkoa den eskalak bete ahal izateko, behaketak egin eta gero zer gertatzen den etab.


4. EMAITZEN EZTABAIDA

4.1. Eskualdeko datuen irudikapena


Aurretik emandako emaitzen datuak kontuan izanik, Durangaldeak Erkidegoko haurren %5a eta Bizkaiko haurren %10a direla ikusten da. Beraz, haur kopurua eta azalera geografikoa alderatuta eskualdeko partaidetza txikia ez dela esan daiteke. Halaber, haur kopuruaren partaidetza eta talde kopuruaren partaidetza bai lurralde mailan, bai erkidego mailan paretsuak dira; lehen kasuan %10a inguru da, eta bigarren kasuan, %5a inguru.

4.2. Eskualdeko haurrak eta taldeak sareka

Datu orokorrak adierazten dute ikasle kopuruaren banaketa paretsua dela hezkuntza sareen artean. Ordea, talde kopuruan ezberdintasuna nabarmena da. Sare publikoan 10 talde gehiago agertzen dira. Hori, herri batzuetan (Abadiño, Atxondo, Berriz, Iurreta, Mallabia, Otxandio eta Zaldibar) ikastetxe publikoen eskaintza baino ez dagoelako gertatzen da (1. eta 2. Grafikoak).



1. Grafikoa: Haur bilakaera sareka



2. Grafikoa: Haur taldeen bilakaera sareka

Haur kopurua eta talde kopurua ikasturterik ikasturte gutxitzearen arrazoia jaiotze tasa behera egiten ari delako da, mugimendu migratzailea azken hamarkadako tasan mantentzen baita.

4.3. Alerta seinaleen eta Garapen Goiztiarraren inguruan


Eskualdeko datuak alderatu nahian eta EUSTATen *urritasun prebalentzia tasaren* datu estatistikoa lortu ezinean, Instituto Nacional de Estadisticako txostena izan dut irizpide bezala.

Eskualdeko alerta seinaleak eta Instituto Nacional de Estadisticak (INE) ematen dituen arteko alderaketak honakoak azaleratzen ditu:

Durungaldea eskualdean 2015-2018 bitarteko behaketek, haurren %5,22ak alerta seinaleak markatzen dituzte. INEk 6 urtetik beherakoen urritasunaren prebalentzia tasa %2,20an jartzen du, horrela bada, haur hauek bere diagnosis eta esku-hartze berezia izango dute. Besteek, hau da, INEren ehuneko batetik eta bestera dagoen tarteko haurrek, garapenean trastornoak izateko arriskuan daude eta berariazko arreta eta esku-hartzea planifikatu behar da, kasuan kasuko eta beharrezkoa balitz detekzio espezifikoa egingo da.

Generoaren ikuspuntutik, eskualdean nesken eta mutilen artean ematen den ezberdintasuna ez dator bat INEko datuek erakusten dutenarekin. INEko datuen arabera ia ez dago alderik (%1,2 neskak eta %1, mutilak) urritasun prebalentzia tasan. Beraz, nesken eta mutilen artean urritasunen prebalentzia tasa parekoa bada, ezberdintasunaren arrazoa pairatzen duten arrisku egoeran edo garapen motelagoa izatean aurkitu behar da.


Hezkuntza sareen arabera, alerta seinaleen bilakaera aldatuz doa haurra hazi ahala. Horrela, 2 urtekoengandik 5 urtekoengana, itunpeko ikastetxeetan, 1,5 puntuko jaitziera dago eta ikastetxe publikoetan 1,5 puntuko igoera. Datu hauen arrazoen artean bi aipatu litezke, biak froga ezinak badira ere. Bata, hasierako urteetan behaketa eskalekin zorrotzago ibili direla diote. Bestea, arazoak dituzten ikasle batzuk ikastetxez eta sarez aldatzen direla (ez dago datu zehatzik, usteak dira) (3. Grafikoa).



3. Grafikoa: Alerta seinaleen bilakaera sareka


Alerta seinale eta garapen goiztiarraren haur kopuruaren erlazioak ez du distribuzio normala ematen. Gaussen kanpaiaren teoriaren arabera, probabilitatearen barruan muturretako banaketak antzerakoak izan behar dute, kasu honetan, alerta seinaleena %5,22koa (203 haur) da eta garapen goiztiarrarena, lagin berdinean, %1,08koa (47 haur), 4,12 puntu txikiagoa.

Halaber, deigarria gertatzen da alerta seinaleen kasu gehiago agertzea garapen goiztiarrarenak baino. Hezkuntza Bereziko Egitasmoa (1982) abiatu zenetik oraindaino egindako ibilbidearen ondorio izan daiteke, urte asko dira urritasunei eta nahasteei begira eta zaintza emandakoak. Ardura berezia sortu zuen eta begirune aparta jarri zaio ezintasunari eta horrek garapen goiztiarrari berariazko begirunea jartzearen premia irentsi ez badu, ezkutatu bai. Horregatik, inklusioaren filosofiak haur guztiak hartzen ditu kontuan bakoitza bere berezitasunetik eta zehaztasunetik (4. Grafikoa).



4. Grafikoa: Alerta seinale eta garapen goiztiarraren bilakaera

Deigarria gertatzen da garapen goiztiarreko kasu gehiago itunpeko ikastetxeetan aurkitzea. Eskola publikoenganako aldea bikoitza da eta ikasturte guztietan ematen da. Ez da arrazoirik aurkitu (5. Grafikoa).




Azken gogoeta bat atal honi amaiera emateko, nabaria da mutilen kasuistika handiagoa alerta seinaleetan, eta neskena garapen goiztiarrean. Horren arrazoia, aspaldiko ikerketetan aurki daiteke. (6. Grafikoa).

Ikerketa klasikoen arabera, oso goiz agertzen dira ezberdintasunak genero artean, horrelaxe, neskatoek eta mutikoez portaera ezberdinak dituzte bizitzaren lehenengo asteetatik; adibidez, neskatoek begi-kontaktu gehiago mantentzen dute (Hittleman eta Dickes, 1979); mutikoez, aldiz, jarduera motor handiagoa erakusten dute eta denbora gehiago ematen dute esna (Feldman, Brody eta Miller, 1980; Eaton eta Enns, 1986). Hizkuntzaren garapenari dagokionez, neskatoek dutela hizkuntza-gaitasun handiagoa bizitzaren lehenengo bi urteetan baieztatu da (Feingold, 1992). Neskatoek goizago eta gehiago ekoizten dituzte soinuak (Harris, 1977) eta hitzak (Nelson, 1973). Ildo beretik, neskatoek egiten dituzte mutikoez baino esaldi luzeagoak eta gehiago erabiltzen dituzte izenordeak eta juntagailuak (Koenigsknecht eta Friedman, 1976). Dena den, ulermenean aldeak ez dira hain nabarmenak (Harris, 1977). (Garcia, M.; Arratibel, N.; Barreña, A. eta Ezeizabarrena, M. J., (2010, 70. Or).

4.4. Alerta seinaleak arloka 2017-2018 ikasturtean

2017-2018 ikasturteko behaketa eskalen analisiak 197 alerta kasu adierazten



ditu, xehetasun batzuk aipagarri eta hausnartzekoak dira.

Alerta seinaleak ematen dituzten haurren ia erdiak (%47,72) bi arlo edo gehiago markatzen dute. Deigarria da, baina INEko datuekin alderatzen bada urritasun prebalentzia tasatik egia esan, berdina da. Alerta seinaleak Haur Hezkuntzako haurren %5,10ak ematen baditu, bi arlo edo gehiagotan markatzen dituztenak %2,50 inguru da, INEko tasarekin dagoen aldea 0,30 puntukoa da. Hori ez da batere esanguratsua.

Hizkuntza eta komunikazioa arloan agertzen diren alerta seinale kopurua deigarria da; bakarrean markatzen dute 46 hurrek eta beste arlo batekin edo

batzuekin batera beste 73k, alerta guztien %60,41a da. Kontuan hartu behar da, hizkuntza ez dela zertan beti euskara izan. Hizkuntza eta komunikazioaren arloan umeak hitz egiten duen hizkuntza hartuko da kontuan itemak betetzerako orduan, ez du zertan tokiko hizkuntza izan behar.

Hizkuntza eta komunikazioaren garapenean, norbanako zailtasunekin lotuta egon daitezkeen urritasunak edo nahasteak alde batera utzita, eragin handiena familiatik edo hazten ari den inguru hurbileko eskarmentutik dator. Haurra eskolaratzen denean bere komunikaziorako konpetentzia ez dago garatuta inguruan gertatzen zaizkion premiei aurre egiteko heinean. Garapena ere ez da homogeen izaten, begi bistako ezberdintasunak agertzen dira eta ezberdintasun horien zergatia ere anitza izaten da. Eskolako hizkuntza ez ezagutzea zergati bat gehiago da. Kasu guztietan, eskolak hasierako ezberdintasunen efektua edo gutxitzen edo saihesten lan egin behar du, banakako egoera bakoitzetik abiatuta. Hizkuntzak garapen kognitiboan duen eraginari arreta handiago jartzea guztiz beharrezko da; hizkuntzak pentsamendua eta adimena sustatzen baititu.

4.5. Agertutako kezken inguruan

Irakasleei hainbat zalantza suertatzen zaizkie protokoloa aplikatu aurretik, bitartean eta ostean ere. Horregatik, beraiek idatzitako zalantzetatik ondorengo erantzunak proposamenak eratzen dira. Gurasoek prozesuan parte hartu behar duten, hauen baimena beharrezkoa den, edota gurasoei emaitzen berri eman behar zaien edo ez-aren arteko eztabaida biziak sortzen dira profesionalen artean.

Hauek eta beste antzerako zalantza batzuk nahiko ohikoak dira prozesuaren hasieran edo hezitzaile berriak sartzen edo gehitzen direnean. Beraz, Ikasturte hasieran, behaketak noiz egingo diren jakinarazi behar zaie familiei. Gelako haurren garapenari buruzko hausnarketa egiteko unea dela azaldu behar da, eta EAEko Haur Hezkuntzako ikasgela guzti guztietan egingo dela esan. Familien parte hartzea ezinbesteko garrantzia du, Hezkuntza eremuan ez litzateke ezertxo ere egin behar familien parte-hartzerik gabe. Ez da inolako baimenik eskatu behar, behatzen den horrek zerikusi handia baitu etapako curriculumarekin, eta ikasle guzti guztientzat pentsatuta dago eta era unibertsalean egiteko.

Behaketa prozesuaren ardura, hezitzaile tutoreari dagokio, baina bere inguruan beste partaide guztiak izango ditu: beste hezitzaileak, aholkularia, familia, pertsonal ez irakaslea, aholkulariak eta kasuan kasuko, agente espezialistak. Emaitzen analisia egingo dute hezitzaileek eta aholkulariak eta horren berri Koordinaziorako Batzorde Pedagogikoan emango da. Horrela, urteko memorian bere isla izango du. Era berean, familiei emaitzen berri emango zaie hiruhilekoaren amaieran izaten diren ohiko bileretan eta beharrezkoa balitz baliteke familiarekin lehenago jartzea harremanetan.

Azaleratzen den beste arduretako bat, Garapenaren laugarren arloari dagokio, hau da, Hizkuntza eta Komunikazioaren arloari. Hizkuntza euskara bera, edota edozein hizkuntza izan daitekeenaren zalantza handia dago. Hau da, hizkuntzaren inguruko itemetan euskara behatu baldin behar den, edota edozein hizkuntza izanik balio duten.

Argi eduki behar da, kasu honetan, hizkuntza hitza gaztelaniako “lenguaje” hitzaren parekidea dela eta ez “lengua” edo “idioma”rena. Beraz, haur batek euskara ez jakitea ez da oztopo arlo horretako itemak betetzeko; hizkuntza garapena eta komunikaziorako mekanismoak behatu behar dira eta hizkuntzaren atalean bere hurbileko helduengana jo beharko da, beharrezko informazio bila.

Azkeneko buruhauste bezala, item baten interpretazio ezberdinak daudenean sortzen diren egonezinak daude.

Itemak zehatz-mehatz irakurriko dira eta ulermen literala egin behar da. Adibidez, itemak kidea ezagutzea eskatzen badu, kasu horietan ez da beharrezkoa kidearen izena esatea, keinuz izendatzea nahikoa litzateke. Bi jokabide edo gehiago dituen itemean, jokabide bakarra betetzea nahikoa da.

5. ONDORIOAK

5.1. Lanarekin lotutakoak

Lan honetan erabili eta aztertu diren datuek, Durangaldean *Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloak* duen eraginkortasuna ikustea, arreta goiztiarraren ideia esanguraz ohartzea eta emaitza esanguratsuak aztertzea eta ondorioak ateratzea eskaini dituztela esan daiteke. Aldez aurretik aurkeztutako datuak aztertzearen ondorioz, proposatu ziren helburuak bete dira, baita hainbat ondorio interesgarri atera. Aztertu diren datuen arabera, ondorengoak esan daiteke:

Durangaldea eskualdeko datuen irudikapena egitean, ikasle kopuruaren banaketa bi hezkuntza sareetan nahiko paretsua dela ikusi da, hau da, Durangaldeko haurrak bi sareetan banatzen direla. Beraz, gurasoek ikastetxe publiko edo itunpeko bat edo beste aukeratzeko orduan, ez da ezberdintasun handirik ikusten, eta hau, deigarria da España edo Europako beste nazio batzuen datuekin alderatzen bada; Erkidegoko tasa nabarmen handiagoa da. Esan behar da ere, 2015-2016 ikasturtetik 2017-2018 ikasturtera haur kopuruak behera joan dela, hau bi sareetan gertatu da; hori, azkeneko urteetan umeen jaiotza tasak behera egin duenaren ondorioa da. Baina horrek ez du eraginik izan haur banaketan, pareko jarraitzen du bi sareetan. Haur taldeen kopuruak ordea, badute ezberdintasun nabarmena. Sare publikoan, pribatuan baino talde gehiago dira hiru ikasturte hauetan. Honen arrazoa, Durangaldeko eskualdeko 7 herritan hezkuntza publikoaren eskaintza baino ez dagoelako da.

Alerta seinale eta garapen goiztiarrari dagokienez, generoen aldetik ezberdintasun nabarmenak ikusi daitezke. Neskei dagokienez, alerta seinaleetan mutilek baino kopuru askoz ere txikiagoa da. Hau ikusirik, neskak orokorrean mutilak baino azkarragoak direla esan genezake, izan ere, urtez urte gertatzen den zerbait da eta. Gainera, garapen goiztiarreko datuek ere antzeko zerbait esaten dute. Kasu honetan, neskak dira mutilak baino kopuru handiago. Beraz, arestian esandakoa indartzen du, neskak mutilak baino azkarragoak izan ohi direla. Hala ere, aipatzekoa da azken ikasturte honetan (2017-2018), garapen goiztiarreko nesken kopuruak behera egin duela nabarmen. Hortik ondorioztatu daiteke aurreko urteetako garapen

goiztiarraren arrazoiak bi izan daitezkeela: bat, estimulazio goiztiarrari esker izan daitezkeela, eta bi, denboraldi baten garapen goiztiarra izan dutela;

Ordea, generoa alde batera utziz eta sarea kontuan hartuz gero, zenbait ondorio ateratzen dira alerta seinale eta garapen goiztiarraren inguruan ere. Ikasturterik ikasturte, ikastetxe publikoen alerta seinale tasa handiagoa izan ohi da itunpeko ikastetxeena baino; eta guztiz kontrakoa gertatzen da garapen goiztiarrarekin. Gainera, garapen goiztiarrean bi sareen arteko aldea handiagoa da alerta seinaleena baino. Honen arrazoiak asko izan daitezke; besteak beste, azken urteetan itunpeko ikastetxeek hezkuntza maila nabarmen hobetu izana, edota, jasotako datuak guztiz objektiboak ez izatea. Baita, zailtasunak dituzten haurrak momentu baten ikastetxez eta sarez aldatu direla. Izan ere, arazo gutxiago izateaz gain, azkarragoak diren ikasle gehiago ikusten direlako itunpeko ikastetxeetan ikastetxe publikoetan baino.

Honen harira esatea, Durangaldea eskualdeko herrialdeetan alerta seinaleak edo garapen goiztiarra markatzen duten haurren kopurua orekatsua dela. Alegia, ez direla alerta seinale asko herri bakarrean ematen, ezta garapen goiztiarra ere; herrialde guztietan modu orekatuan banatuta daudela esan daitezke. Hori, protokoloa orokorrean ondo erabiltzen denaren seinale izan daitezke, izan ere, zentro guztien emaitzak zentzuzkoak baitira.

Alerta seinaleak ematen diren arloei erreparatuz eta 2017-2018 ikasturteari begiraturik, deigarria egiten da hizkuntza eta komunikazioaren arloan dagoen alerta seinale kopurua, alerta guztien %60,41a da eta. Esan beharra dago, hizkuntzan eragina duen faktore garrantzitsuenetarikoa umea hasten ari den ingurutik datorrela, honek eragin handia duelako. Beraz, familiek zentzu honetan haurra estimulatzeko ez baldin badute, nekez garatuko du honek hizkuntza eta komunikazioaren arloa. Tasa honen beste arrazoietakoa bat, haurraren ama hizkuntza euskara ez izatea izan daitezke eta, hezitzaileak behaketa eskala betetzerakoan horri ez diola erreparatu izan daitezke. Kontuan izan behar da, protokoloak hizkuntza terminoa erabiltzen duenean, ez dagokiola euskarari, hau da, hizkuntza terminoak edozein hizkuntzaren konpetentziari egiten dio erreferentzia.

Alerta seinaleekin amaitzeko, aipatzea, nahiz eta pentsatu alerta seinaleen kopurua handia denean protokoloa eraginkorragoa dela, paradoxikoa bada ere alderantzizkoa gertatzen da kasu honetan; hau da, zenbat eta alerta seinale gutxiago izan, are eta haurren garapenaren osasun maila handiagoa adierazten du protokoloak.

Azkenik kezka eta zalantzen atalean, guztiz ohikoa da hezitzaileei horrelakoak gertatzea, are eta gehiago protokolo berri batekin topo egiten dutenean; baina hori, inola ere, ezin daiteke ohiko egoera bihurtu.

Amaitzeko esatea, Arreta Goiztiarraren prozesua hasi baino ez dela egin, eta etorkizuna orain egiten denaren ondorioa baino ez dela izango. Beraz, orain arteko ibilbidean ikusitako akatsak agerian jarri behar dira, hauek konpondu ahal izateko.

Muga orokorrak

Lan hau protokolo bakar batetik lortutako datuekin egin dago, eta erabilitako lagina Durangaldeko haurren populazioarena da. Durangaldeak indize sozio-ekonomiko ertaina du. Aurreko faktore hauek, ateratako emaitzak orokortu ezin izatea eragiten dute, izan ere, indize sozio-ekonomiko baxua edota altua duten eskualdeetan emaitzak ziurrenik ez liratekeelako berdinak izango.

Beste alde batetik, protokoloak hiru ikasturte baino ez darama martxan, beraz, oraindik goiz da berearen berezitasunak antzemateko. Beraz, jasotako datuekin ezin daitezke itemen baliopen ez gaitzespenik egin.

Etorkizuneko erronkak:

Lehenengo erronka, beste herrialde batzuetan horrelako ikerketak topatzea izango litzateke, bai nazio mailan, baita nazioartekoan.

Eta bigarrena, hemendik eta urte batzuetara protokoloaren ebaluazio bat egitea da; alde batetik ebaluazio global bat, horrela, hautaketa goiztiarra egiteko benetan eraginkorra den edo ez ikusi ahal izateko; eta bestetik, zehatzagoa den ebaluazio bat, hain zuzen ere itemena, beraien funtzioa betetzen dutela ikusteko, emaitza zalantzarriak ematen dituzten ikusteko, emaitzak guztiz oztopatzen dituzten

ikusteko, edota emaitza okerrak ematen dituzten ikusteko. Eta horrela, ateratzen diren ondorioak batzuk edo besteak izanik, arazoei irtenbidea eman ahal izateko.

5.2. Pertsonalak

Amaitzeko, ikuspuntu pertsonalago batetik, lan honek pertsonalki asko eskaini didala esango nuke, gehien bat etorkizuneko hezitzaile bezala, baina oraindik orain ere. Hezkuntza arloan hasi nintzenetik izan dut gauza berri edo desberdinetan ibiltzeko jakingura eta grina. Duela urtebete inguru, *Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa* jauzi zitzaidan eskuetan, eta momentutik sortu zen hau aztertzekeo ideia. Hona hemen zergatia.

Haur Hezkuntza ikasten egondako urte hauetan zehar, askotan entzun izan dut zeinen garrantzitsua den Haur Hezkuntzako etapa, izan ere, etapa honetan garatzen direlako oinarritzko hainbat atal. Gainera, oso garrantzitsua dela haur bakoitzak bere garapen prozesua duela ikustea, eta hau ezinbestean errespetatu behar dugula. Ideia hau hartuta, haurrek izan ditzaketan zailtasunak etorri izan zaizkit askotan burura. Egia da haur bakoitzak bere garapen prozesua duela, eta horretarako, bere denbora behar duela, betiere, denbora tarte batean izanda, izan ere, garapen horren atzerapenaren arrazoia oztopo edo zailtasun bat izan daitekeelako. Ikusirik zeinen zaila den hauek aldeztatik detektatzea, eta zelako eragina duen arazo bat ahalik eta arinen detektatzea eta honi behar duen erantzuna ematea, behaketan oinarritzen den protokolo honek hezkuntzan ezinbesteko garrantzia duela ohartu naiz.

Lana hasi eta prozesu guztian zehar, hainbat gora behera izan ditut, zalantzak eta oztopoak. Argi nuen protokoloaren inguruan egin nahi nuela lana, baina hor ere nire lehenengo muga suertatu zen. Denbora asko behar izango nuen EAEko datu guztiak batu eta aztertu ahal izateko, baita lanean orri muga handiago izatea. Beraz, azkenean Durangaldea nire eskualdea izanik, honetara mugatzea erabaki nuen.

Horrez gain, esan beharra daukat datuak eskuratzearekin batera, zenbait estutasun izan nituela. Ez nekien bertatik ondorio esanguratsuak aterako nituen edo ez, beraz, hauekin hainbat proba eta grafiko ezberdin egin nituen ondorio ahalik eta esanguratsuenak atera ahal izateko. Pentsatutakoa baino zailagoa egin zitzaidan hainbeste datu, era ordenatu eta koherentean antolatzea.

Izandako zalantza eta kezka alde batera utziz, alde batetik esatea ikerketa lana oso interesgarria egin zaidala, gustukoa izan dut datuetatik nik neuk grafikoak sortu eta hauek interpretatzea eta hainbeste gauzez ohartzea. Beste aldetik, behaketak gure bizitzetan duen garrantziaz ohartu naiz. Hauetatik atera daitezkeen hainbeste hausnarketa eta ondorio ikustera eraman nau lan honek, eta ondorio horien bitartez, zenbat gauza hobetu ahal diren. Eta are gehiago, zeinen tresna garrantzitsua den hezitzaile batentzat, duenetatik aberatsena dela esaten ere ausartuko nintzateke, behaketa eta hauek jasotzeko ezinbesteko baliabidea. Eskalak, adibidez. Hau esanda, protokoloa ulertzearen eta ondo erabiltzearen arduraz jabetu naizela aipatzea geratzen zait.

Azkenik esatea, tutoreak izan duen lan egiteko era kooperatiboa gustuko izan dudala. Hilean behin, tutorearekin eta kideekin biltzen ginen egindakoa eta suertatuko zalantzen inguruan hitz egiteak, eta nahiz eta edukien aldetik gure lanek zerikusirik ez izan, beraien ekarpenak lagungarri izan direla uste dut. Honek, lan guztietatik ikastea eta zerbait eramatea eragin dit. Hainbat gauza izan dira gure artean partekatu ditugunak; usteak, kezka, larritasunak, zalantza aholkuak, iritziak, indarrak, gogoak eta kemena. Nire euskarri izan direla ere esan dezaket. Amaitzeko, tutoreak egindako lanari tartea eskaintzea ezinbestekoa egiten zait, emandako laguntzari, eta izan duen pazientzia eta konfiantzari.

Protokoloaren inguruko muga pertsonalak

Lehenengo eta behin azaltzea, ezin dudala protokoloaren inguruan praktika profesionaletik hitz egin, izan ere, profesionalki erabili ez dudana zerbait delako. Beraz, ezin dut era praktikoan baloratu.

Hala ere protokoloa, Haur Hezkuntzan eta Arreta Goiztiarrean aurrerapauso oso handia dela iruditzen zait. Orain arte ez da horrelako ezer egon, eta horregatik ikusten dut hain garrantzitsu aipatutako muga horiek gainditzen saiatzea, asmoa bertan behera gero ez dadin.

Izan ere, ebaluatzen ez den guztia inoiz existitu ez den bezala gelditzeko arriskua du. Edizio berriek, iraupen mugatua dute beti; ezin dugu pentsatu betirako denik. Beraz, ikasturterik ikasturte iradokizunak jaso eta horien analisia egitea

ezinbestekoa gertatzen da egoeren aldaketetara egokitu ahal izateko, eta horrela, protokoloa berehala zaharkituta geratzeko arriskua urruntzen da.

ERREFRENTZIAK

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak aginduta horretarako eraturiko Batzordearen Dokumentua. (2010). *Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako*.

Booth, T. eta Ainscow, M. (2011). *Guía para la Educación Inclusiva. Desarrollando el aprendizaje y la participación en los centros escolares* (Gerardo Echeita, Yolanda Muñóz, Cecilia Simón eta Marta Sandoval, trad. eta ed.). España: Grafilia. (Jatorrizko lana 2011n argitaratua).

Comisión Europea. (2002). *Educación y formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.

Echeita Sarrionandia, G. eta Duk Homad, C. (2008). Inclusión educativa. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 6(2).

Echeita Sarrionandia, G. eta Verdugo Alonso, M. A. (Koord.) (2004): *La declaración de Salamanca sobre necesidades educativas especiales 10 años después: Valoración y prospectiva*. Salamanca: INICO.

Eusko Jaurlaritzak. (2012). *Eskola Inklusiboaren esparruan Anitzasunari erantzuteko Plan Estrategikoa*. Vitoria-Gazteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarra Hezkuntzaren Baitan*. Vitoria-Gazteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

García, I.; Arratibel, N.; Barreña, I. eta Ezeizabarrena, M. J. (2010). *Generoaren eragina komunikazioaren garapenean 0-30 hilabete bitarteko haur euskaldunetan*. Uztaro 75, 69-86. 2018/04/23 an berreskuratua hemendik:

<http://www.uztaro.eus/artikulu/76/generoaren-eragina-komunikazioaren-garapenean-8-30-hilabete-bitarteko-haur-euskaldunetan/1047>